



**ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN (EEE)
KLAUSULA ADMINISTRATIBO BEREZIEN ETA
BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA, PROZEDURA
IREKIAZ ESLEITZEKO KONTRATU HAU: IBILGAILU
INDUSTRIALAK (AUTOBUSAK ETA KAMIOIAK)
ERAGINKORTASUNEZ GIDATZEKO IKASTAROAK
EMATEKO KONTRATUA**

ESPEDIENTE ZENB.:
EDG/010/09

PROZEDURA IREKIA

Bilbon, 2009ko abenduaren 4an
José Ignacio Hormaeche Azumendi jn.
EEEko kontseilari-zuzendari nagusia



KARATULA

ADJUDIKATZEKO ERA: Lehiaketa irekia.

ESPEDIENTE ZENB.: EDG/010/09

A. KONTRATUAREN XEDEA

Ibilgailu industrialen bat (autobusak eta kamioiak) gidatzen dutenei gidatzeari buruzko banakako ikastaroak ematea; baita Ibilgailu industrialen (autobusak eta kamioiak) gidabaimena eskuratzeko Irakaskuntza Sisteman integratutako autoeskoletako irakasleei ere. Ikastaroen helburua da ibilgailu industrialak gidatzeko era berri bat sustatzea. Era horretan, erregai-kontsumoa nabarmen gutxitzen da, %10eraino irits daitekeena, gidatze konbentzionalaren aldean.

B. ORGANO KONTRATATZAILEA

Energiaren Euskal Erakundea (EEE), honako helbide hau duena: Bizkaia plaza eraikina. Urkixo zumarkalea, 36 – 1. solairua. 48011 Bilbo..

- I.F.Z.: Q-5150001E
- Arduradun teknikaria: Juan Manuel Fernández
- Telefonoa/faxa/posta elektronikoa: 94-4035674 / 94-4035699 / jmfernández@eve.es
- Kontratatzailearen profila: www.eve.es

C. GEHIENEKO BANAKAKO PREZIOA ETA KONTRATUAREN BALIOA

- Gehieneko banakako prezioa 300 eurokoa (BEZa gabe) izango da ikastaro bakoitzean, ibilgailu industrialen (autobusak eta kamioiak) gidariei emango zaiena.
- Gehieneko banakako prezioa 300 eurokoa (BEZa gabe) izango da ikastaro bakoitzean, Ibilgailu industrialen (autobusak eta kamioiak) gidabaimena eskuratzeko Irakaskuntza Sisteman integratutako autoeskoletako irakasleei emango zaiena.
- Kontratuaren balioa: 100.000 euro (BEZa gabe)

Baldintza horiek betetzen ez dituzten eskaintza guztiak ez dira onartuko.

D. IZAPIDEA

Ohikoa.

E. PROPOSAMENAK JASOTZEKO EPEA

Eskaintzak edo proposamenak 2009ko abenduaren 23ko 12:00ak (12) arte jasoko dira.

F. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO LEKUA

Proposamenak EEEri zuzenduak aurkeztuko dira, Garraio Atalari, honako helbide honetan: Bizkaia plaza eraikina. Urkixo zumarkalea, 36 – 1. solairua. 48011 Bilbo.



G. BEHIN-BEHINEKO BERMEA

Ez dagokio.

H. BEHIN BETIKO BERMEA

Ez dagokio.

I. PREZIOEN BERRIKUSPENA

Ez dagokio.

J. ZERBITZUA GAUZATZEKO LEKUA ETA EPEA

- Epea: urtebete, kontratua sinatzen den egunetik kontatzen hasita.
- Lekua: EEEk aukeratuko duen EAEko edozein leku.

K. BERMEEI DAGOZKIEN EPEA

Ez dagokio.

L. PUBLIZITATEAREN GASTUAK

Ez dagokio.

M. ALDAGAIEN ONARPENA

Ez dagokio.

N. KAUDIMEN EKONOMIKOA, FINANTZARIOA ETA TEKNIKOA

Plegu honen 8.5 klausulan adierazten den dokumentazioa aurkeztu behar da.

O. ADJUDIKATZEKO IRIZPIDEAK

Esleipena erabakitzeke erabiliko diren irizpide orokorrak hauexek dira:

Irizpidea	Deskribapena	Puntuak
1	B gutun-azala. Formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideak	
	• Proiektuaren egokitzapena zehaztutako helburura.	27
	• Eskatutako ezaugarriak hobetzea (helmena hobetzea eta abar).	6
	• Aurkeztutako giza baliabideak eta baliabide teknikoak. • Emateko ezaugarrietara egokitzeko gaitasuna eta malgutasuna, epe laburreko programazioen bidez.	18
	• Originaltasuna, sormena ea antolatzeko eta koordinatzeko gaitasuna.	9
2	C gutun-azala. Formula matematiko bidez ebaluatu	



	ahal diren irizpideak	
	<ul style="list-style-type: none">Ibilgailu industrialen gidariei emango zaien ikastaro bakoitzeko banakako prezioa.	32
	<ul style="list-style-type: none">Autoeskolak irakasleei emango zaien ikastaro bakoitzeko banakako prezioa.	8
GUZTIRA		100

Banakako prezioei lotutako irizpideak balioesteko: formulak hauexek dira:

GIDARIENTZAKO IKASTAROEN BANAKAKO PREZIOA
Gehienez 32 puntu, 100 punturen aldean

$$\begin{array}{l} \text{Enpresa lizitatzailaren} \\ \text{puntuak} \end{array} = \frac{\text{Banaka eskainitako prezio txikiena}}{\text{Enpresak eskainitako banakako prezioa}} \times 32 \text{ puntu}$$

IRAKASLEENTZAKO IKASTAROEN BANAKAKO PREZIOA
Gehienez 8 puntu, 100 punturen aldean

$$\begin{array}{l} \text{Enpresa lizitatzailaren} \\ \text{puntuak} \end{array} = \frac{\text{Banaka eskainitako prezio txikiena}}{\text{Enpresak eskainitako banakako prezioa}} \times 8 \text{ puntu}$$

P. ZIGORTZEA

Plegu honetan aurreikusten direnak.

Q. LUZAPENA

EEEk hala eskatuz gero, eta kontratuaren gehieneko kostu/prezioa gainditu ezean, bi (2) hilabeteko luzapena onar daiteke.

R. LANAK ZATIKA JASOTZEA

Ez dagokio.

S. PREZIOAREN ORDAINKETA

Kontratuaren prezioaren ordainketak hilabetea amaitutakoan egingo dira.

Hil bakoitzaren amaieran, enpresa esleipendunak trebatutako ikasle kopuruari dagokion faktura, eskainitako unitateko edo banakako prezioaren arabera, bidaliko dio EEERI. Horrekin batera, emandako ikastaroen inguruko txostenak eta ikastaroetan parte hartuko duten ikasle guztiei igorri beharko zaizkien diplomak helaraziko dizkio EEERI esleipendunak. Behin EEEK txostenak eta faktura onetsitakoan, ordaindu egingo da.

Esleipendunak ematen dituen ikastaroak kobratzeko eskubidea izango du, beti ere kontuan izanik adostutako unitateko prezioa, kontratuan jasotzen dena, onartuko diren aldaketak eta EEEK idatziz emango dituen aginduak.



T. HIZKUNTZA BALDINTZAK

Kontratu hau Euskal Autonomia Erkidegoko 6. artikuluan eta azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean (euskararen erabilera arautzekoa) eta hura garatzen duen araudian xedatutako hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren mende dago.

Bi hizkuntza ofizialak erabiltzea kontratuaren gauzatze baldintzetako bat da. Hala, bada, betetzen ez bada, kontratu honetako edozein klausula ez betetzeagatik aurreikusi diren ondorioak aplikatuko dira; ez bada, gauzatu beharreko kontratuak berezko dituen ezaugarriek eskatu egiten dutela nahitaez beste hizkuntza bat edo batzuk modu eskusiboan erabiltzea. Dena den, neurri horrek kontratuaren baldintza orrian edo pleguan agertu beharko du.

ONARRIZKO BALDINTZAK

1. ARAUBIDE JURIDIKOA

1.1. Kontratuaren araubide juridikoa:

- Oinarrizko Baldintzen Plegu honetan eta bere karatulan zehaztutakoa, baita Zehaztapen Teknikoen Txostenean jasotzen dena ere. Horrekin batera, Energiaren Euskal Erakundeak (“**EEE**”) onartutako Kontratatzeko Barne Jarraibideetan adierazitakoa (“**KABI**”) eta Kontratatzailearen Eskakizuna atalean argitaratua (www.eve.es) eta esleipendunarekin sinatuko den kontratuan jasoko diren baldintzekin eta itunekin bat etorriz.
- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen arabera (“**SPKL**”). Plegu honen klausuletan adierazten diren gaiei dagokienez, soil-soilik.
- Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren arabera, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Araubide Orokorra onartzen duena (aurrerantzean “**HAKLEO**”), aurreko puntuan azaldutako gaiei dagokienez.
- Zuzenbide Pribatuaren arauak aplikagarriak izango dira kontratuaren interpretazio, ondorio, betetze eta amaierari doazkien gaiak ebazteko.

1.2. Lanak egiten arituko diren langileei dagokienez, enpresaburu kontratatzaileek bete beharko dituzte indarrean dagoen lan eta gizarte legeria.

1.3. Kontratuaren edozein alderditako ezjakintasunak edo bertan bildutako dokumentuak eta eranskinak edo itundutakoa gauzatzean zerikusia izan dezakeen Administrazioak xedatutako arau, plegu eta aginduen gaineko ezjakintasunak ez du kontratista edo enpresaburua salbuetsiko kontratua betetzeko obligaziotik.

2. KONTRATUAREN HELBURUA

Kontratuaren helburua Plegu honen Karatularen “**A**” **ATALEAN** adierazia da. Hori guztia baldintza teknikoaren arabera, Zehaztapen Teknikoen Txostenean adierazten dena. Plegu honetan jasoko dena, 5. eranskina, eta betetzeko eska daitezke. Beraz, aipatutako proiektua kontratuan sartuko da eta alde guztiek bete beharko dute.

3. LIZITAZIOAREN AURREKONTUA, AURREIKUSITAKO BALIOA ETA KONTRATUAREN PREZIOA

a) Kontratu honen lanak gauzatzeko gehieneko prezioa Plegu honen

karatulako **"C" ATALEAN** adierazitakoa izango da.

b) Aurreikusitako balioa Plegu honen karatulako **"C" ATALEAN** azaltzen da, aurreikusitako balioa kalkulatzeko, SPKLen 76. artikulua xedatutakoa kontuan hartu da, BEZa gabe.

c) Kontratuaren prezioa esleipenaren ondorioz aterako dena izango da, eta diru-sail independente gisa sartuko du BEZa.

Kontratuaren prezioan gainerako zergak, tasak eta era guztietako kanon aplikagarriak sartuta daudela ulertuko da, bai eta Plegu honetan bildutako betebeharrak betetzeak kontratistari ekarri ahal dizkion gastu guztiak ere (gastu orokorrak, finantzarioak, onurak, aseguruak, garraioa eta joan-etorriak, berarentzat lan egiten duen pertsonal teknikoaren ordainsariak, bisak, etab.).

d) Enpresa esleipendunak ordainduko ditu gainerako gastuak, kontratuan azaltzen diren lanak behar bezala egiteko, eta beraz, EEEK ez ditu ordainduko, 5. eranskinean ageri den Zehaztapen Teknikoen Txostenaren arabera.

4. PREZIOEN BERRIKUSPENA

Karatularen **"I" ATALEAN** zehazten dena beteko da.

5. GAUZATZEKO EPEA

5.1. Gauzatzeko epea Plegu honen Karatularen **"J" ATALEAN** adierazitakoa izango da.

Ezarritako epeak betetzeko behar diren aldian aldiko epeak eskaintzan ezarriko dira edo EEEK lan programan onartuko dituenak izango dira.

5.2. Lanak egiteko epeak laburtzen edo jardueren ordenamendurako zatikako epeak ezarri gero, ezinbestean bete beharko lirateke, horrela eskaintzen edo ezartzen badira, hurrenez hurren.

5.3. Karatularen **"Q" ATALEAN** hala aurreikusten baldin bada, kontratua amaitutakoan, alde guztien oniritziarekin, kontratua luza daiteke. Luzatzekotan, epea ez litzateke karatularen **"J" ATALEAN** aurreikusitakoa baino luzeagoa izango.

6. ADJUDIKATZEKO ERA

6.1 EEEK kontratatzeke dituen barne-jarraibideak edo arauak aplikatuko zaizkio kontratu honi esleitzeko orduan.

Kontratua prozedura irekiaren bidez esleituko da, eta esleipena honako fase hauei jarraituz egingo da:

(i) lehen fasean ("*Eskaintzen aurkezpena*"), interesatutako lizitatzailleek (A), (B) eta (C) gutun-azalak aurkeztuko dituzte.

(ii) bigarren fasean ("*Kontratataren hautaketa*") lizitatzailleek aurkeztutako eskaintzen aztertu ondoren, EEEK kontratua formalizatzeko lizitatzaillea hautatuko du.

(iii) hirugarren fasean ("*Formalizazioa*"), EEEK eta hautatutako lizitatzailleak kontratua sinatuko dute.

6.2 EEEK eta kontratistak men egingo diote informazioaren konfidentzialtasuna babesteko obligazioari, KABIren 6.(d) atalean ezarritako moduan.

6.3 Kontratazio-organoa "**B**" **ATALEAN** azaldutakoa izango da.

6.4 Kontratazio-organoari laguntzeko, kontratazio-mahaia edo organo baliokideren bat era daiteke, eta haxe arduratuko da parte-hartze eskaerak kalifikatu eta eskaintzak baloratzeaz.

7. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

7.1 Proposamenak aurkezteko epea 2009ko abenduaren 23ko hamabiak (12:00) arte izango da.

7.2 Proposamenak honako helbide honetara bidaliko dira: Bizkaia plaza eraikina, Urkixo zumarkalea, 36. 1. solairua. 48011 Bilbo.

7.3 Lizitatzailleak postaz bidaltzen badu eskaintza, bidalketa postabulegoan zer egunetan egin zuen kreditatu beharko du, eta kontratazio-organoari jakinarazi beharko dio, egun bertan, eskaintza bidali duela. Ez badira bi baldintza horiek betetzen edo bidali izanaren jakinarazpena baldintza honetan adierazitako gehieneko epea igarota egiten bada, ez da eskaintza onartuko.

7.4 Espainiako nahiz atzerriko pertsona fisiko nahiz juridikoek aurkez ditzakete proposamenak, baldin eta jarduteko gaitasun osoa badute eta kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa kreditatzen badute. Halaber, ezaugarri hori kredita dezakete zerbitzu-enpresatzat sailkatuta daudela egiaztatzen badute, Eusko Jaurlaritzak edo Estatuko administrazio-kontratueterako kontsulta-batzordeak emandako ebazpen bidez. Ildo horretatik, karatulako "**N**" **ATALA** bete behar dute proposamen-egileek.

7.5 Proposamenak aurkez ditzakete, halaber, enpresari-taldeek, aldi baterako elkarteak osatzen badituzte, Sektore Publikoko Kontratuen

Legearen 48. artikulua araututako moduan. Enpresa-taldeko enpresariak beren jardute-gaitasuna eta kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko eta profesionala kreditatu behar dute agiri honetako baldintzek xedatu moduan, eta, horrez gain, agiri pribatu batean adierazi beharko dituzte beren izenak eta egoera profesionala, zer-nolako partaidetza duten elkartean eta, kontratua indarrean den bitartean, zer pertsona edo entitatek ordezkaturiko dituen, ordezkapen-ahalmen osoz, EEEren aurrean. Enpresari horiek guztiek aldi-baterako enpresa-elkarte gisa eratzeko konpromisoa hartu beharko dute, HAKLEOko 24. artikulua xedatutako moduan. Enpresa-elkarteko kide diren enpresetako ordezkari guztiek izenpetu behar dute adierazitako agiria.

- 7.6 Lizitatzailen proposamenetan adierazten diren lizitazio-tipoak, haiek kontratuaren esleipenerako zenbateko zehatz eta jakinetan adierazten diren heinean, bere baitan jasoko dituzte, indarreko araubideari jarraituz, haiei aplikatzekoak diren zerga guztiak. Horren salbuespena BEZa izango da, hura aparteko kontu-sailtzat jasoko baita.
- 7.7 Interesatuak, hala nahiko balute, intereseko dokumentazioa azter dezakete, EEE erakundeko kontratatzailearen eskakizunean edo profilean lizitazio hau argitaratzean adierazten den lekuan.
- 7.8 Lizitatzailak ezingo dute proposamen bat baino gehiago aurkeztu, baina aurkeztutako proposamenek egokitzat irizten dituzten soluzio-bariante guztiak jaso ditzakete; betiere, baldintza-orri honetako karatulako "**M**" **ATALEKO** eskakizunak eta baldintzak betetzen badituzte.
- Lizitatzailak ezingo dute beste enpresa batzuekin proposamenik izenpetu, baldin eta aurrez banakako enpresari gisa proposamenik egin badute (xedapen horren salbuespen bakarria izango da lote bat baino gehiago izatea eta proposamenak lote bat baino gehiagorako aurkeztea). Printzipio hori urratuz gero, ez dira onartuko enpresariak egindako proposamen guztiak, eta, ildo horretatik, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 129.3 artikulua arautzen duena beteko da.
- Adierazitakoa betetzeko izango bada ere, lizitatzailak aukera izango dute, kontratuak lote bat baino gehiago baditu, bai kontratuxede osorako eskaintza bat egiteko (eskaintza hori banakatu egingo da lote bakoitzerako) edo lote bat edo batzuetarako eskaintzak egiteko.
- 7.9 Dokumentazioa euskaraz edo gaztelaniaz idatzita aurkeztu behar da. Atzerriko enpresek hizkuntza horietakoren batera itzulita aurkeztu behar dute dokumentazioa.
- 7.10 Eskaintzarik eginez gero, enpresariak baldintzarik gabe onartuko dituzte baldintza-orri edo Plegu honetako klausula guztiak, eta eskaintza horri ardurapeko adierazpen bat erantsiko diete, EEEekin kontratatze baldintza guztiak betetzen dituztela esanez.

- 7.11 Lehiaketatik edo lizitaziotik at geratuko dira jarraian aipatzen diren kasuren batean baldin badaude, EEEK behar bezala arrazoitu ondoren:
- a) Dokumentazioa epez kanpo aurkeztea.
 - b) Eskatutako gaitasun enpresarial/ profesionala egiaztatzeko agiririk ez aurkeztea.
 - c) Plegu honetan eskatzen diren kaudimen ekonomikoa, finantzarioa, teknikoa edo profesionala egiaztatzeko agiririk ez aurkeztea.
 - d) Proposamen ekonomiko batzuk aurkeztea, bakarka edo beste enpresa lizitatzailleekin batera aldi baterako enpresa eratu.
 - e) Plegu honetan eta zehaztapan Teknikoen Pleguan ezarritako baldintzaren bat ez betetzea.
 - f) SPKLen xedatutako baldintzaren bat ez betetzea.

8 PROPOSAMENEN EDUKIA

8.1 Lizitatzailleek hiru gutun-azal aurkeztuko dituzte, eta, horietan guztietan, datu hauek adieraziko dituzte: lizitatzaillearen izen-abizenak edo enpresaren izena; gaia adierazteko, espedientearen erreferentzia-zenbakia adieraziko dute; eta, kontratu-xede adierazteko, baldintza-orri honetako karatularen "**A**" **ATALEAN** adierazitakoa zehaztuko dute.

8.2 Hiru gutun-azalak helbide honetara bidaliko dira: Bizkaia plaza eraikina, Urkixo zumarkalea, 36 - 1. solairua, 48011 BILBAO. Baldintza-orri honetako karatularen "**E**" **ATALEAN** adierazitako epean bidali behar dute, eta/edo, hala adierazten bada, lizitazio-iragarkian zehaztutako epean.

"Gaiari" dagokion epigrafean, hau adieraziko da gutun-azal bakoitzean:

- "**A**" gutun-azala: "Lizitazio-espedientearen zenbakia: dokumentazio administratiboa"
- "**B**" gutun-azala: "Lizitazio-espedientearen zenbakia: Balio-irizti bidez ebaluatu ahal diren irizpideak"
- "**C**" gutun-azala: "Lizitazio-espedientearen zenbakia: Formula matematiko bidez ebaluatu ahal diren irizpideak"

8.3 Baldintza-orri honetako 8.5. atalean zehaztutako agiriak jasoko ditu "A" gutun-azalak, "B" gutun-azalak 8.6. atalean zehaztutakoa eta "C" gutun-azalak 8.7. atalean jasotakoa.

8.4 Proposamenak entregatuz gero, lehiatzaileek onartu egin beharko dute lizitazioa, baldin eta esleipendun suertatzen badira. Proposamena aurkeztu ondoren, ezingo da hura erretiratu, baldin eta EEEK uste badu badagoela horretarako arrazoi justifikaturik.

8.5 "A" gutun-azala: Dokumentazio administratiboa.

EEEko sarrera-erregistroan aurkeztuko da dokumentazio hori, gutun-azal itxi baten barruan. Gutun-azalean, espediente-zenbakia adieraziko da, eta, horrez gain, baldintza-orri honen karatulako "A" **ATALEAN** adierazitako deskribapena idatziko da, "Dokumentazio orokorra" dela iragarritz.

Dokumentazio orokorraren atalean, Eusko Jaurlaritzako kontratisten erregistroan erregistratuta dauden lizitatzailleek eta Estatuko lizitatzailleen eta enpresa sailkatuen erregistro ofizialean erregistratuta daudenek nahikoa izango dute erregistratuta izatearen ziurtagiriaren kopia aurkeztea. Horrekin batera, ardurapeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute, erregistroan adierazitako datuak baliozkoak direla eta indarrean daudela bermatuz.

Adierazitako erregistroetan erregistratuta ez dauden enpresariak, sarrera-erregistrora agertu, eta agiri hauek erantsi beharko dituzte "A" gutun-azalean:

- a. Proposamena aurkezten duen pertsonaren nortasun agiri nazionala edo haren baliokide den agiri fede-emailea, eta beste pertsonaren baten izenean agertzen edo proposamenak izenpetzen dituzten pertsonak, berariazko ahalorde askietsia ere aurkeztu behar dute.
- b. Pertsona juridikoak diren enpresarien jarduteko gaitasuna kreditatzeko, haien eraketa-eskritura edo aldaketakoa aurkeztu behar dute. Eskritura horrek merkataritza-erregistroan inskribatuta egon beharko du, baldin eta hari aplikagarri zaion merkataritza-leggediak hala eskatzen badu. Hala ez balitz, jarduteko gaitasuna kreditatzeko, eraketaren eskritura edo agiria, estatutuak edo sorrera-egintza aurkeztu beharko dituzte. Bertan, jarduera arautzeko arauak agertu beharko dira, eta behar bezala inskribatuta egon beharko dira kasuan kasuko erregistro publikoan.
- c. Jarduteko gaitasuna kreditatzeko, kontratatzeko adina ahalmen ematen duen ahalorde askietsia aurkeztu beharko dute, aurreko atalean xedatutakoa betez.
- d. Ardurapeko adierazpena, ahalmendutako pertsona batek izenpetua, eta behar bezala adieraziko duena enpresariak ez duela Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 49.1. artikuluan araututako debeku, ezgaitasun edo bateraezintasuneko kausarik betetzen. Alderdi hori kreditatzeko, beteta eta izenpetuta aurkeztuko dituzte baldintza-orri honetako 2. ERANSKINA.
Adierazpen horretan, berariaz azaldu beharko dute egunean betetzen dituztela zerga-betebeharrak eta gizarte-segurantzarekikoak. Horrez gain, hautatutako enpresaburuak alderdi horiek betetzen dituela kreditatu beharko du kontratua formalizatu baino lehen.

Baldintza-orriko karatulako "G" **ATALEAN** hala jasotzen bada, abal bat eratu izanaren agiria aurkeztu beharko da. Behin-behineko bermea izango da abal hori, eta atal horretan adierazitako zenbatekoa izan behar du. Hautatutako enpresariak kontratua formalizatzen duenean, amaitu egingo da behin-behineko bermearen indarraldia, eta itzuli egingo zaie hura hautatuak izan ez diren lizitatzailerei.

Lizitatzailerean kaudimen ekonomikoa, finantzarioa, teknikoa edo profesionala kreditatzeko, kaudimen hori dutela egiaztatzen duten honako agiriak aurkeztu behar dituzte:

- Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa

1. Finantza-erakundearen txostena, edo, haren ezean, arrisku profesionalen kalte-ordainerako aseguru bat izatearen frogagiria.
2. Negozioen bolumenari buruzko adierazpena, edo haren ezean, kontratu honi lotutako jarduerekin zerikusia duten jardueren negozioaren bolumenarena, azken urtean izandakoen datuei dagokienez.
Adierazpenarekin batera, auditoriaren txostena aurkeztu behar da, txosten hori egin behar baldin badu lizitatzailak.

- Kaudimen teknikoa edo profesionala

1. Azken bost (5) urtean honen antzeko ezaugarriak dituztenen kontratu nagusien zerrenda, haien prezioak, datak eta onuradunak adieraziz.
2. Esleipen honen lanak egiteko lan-taldearen deskribapena, alor horretan langileen gaitasuna eta esperientzia azalduz.
3. Lizitatzailak kontsumo neurgailuekin dituen ibilgailu industrialen deskribapena.

Lizitatzailak eskaintza egitean honako material hau eduki beharko du: Euro 4, Euro 5 edo VEM minimo dituzten bi ibilgailu industrial (kamioien kasuan, 300 HP, atoaia eta bost ardatzekoak; eta autobusenean, aldiz, 12 metro luze izatea), kontsumoa neurtzeko tresnak dituzten ibilgailuak, hain justu ere.

Behar bezala arrazoitutako kausak direla medio, enpresariak ezingo balitu eskatutako erreferentziak eman, bestelako dokumentazioa balia dezake bere kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa kreditatzeko, baldin eta EEEk egokitzen jotzen badu egiaztapen-bide hori.

- Kaudimena kanpo-baliabideekin integratzea

Kontratu hau egiteko nahiko kaudimena duela egiaztatzeari begira, kontratista beste erakunde batzuen kaudimen eta bitartezkoen balia daiteke, erakunde horiekin izango dituen

harreman juridikoak edozein direla, betiere kontratua gauzatzeko erabiliko direla egiaztatuz.

Kontratua gauzatu ahal izateko kontratistak bitarteko horiek izango dituela egiaztatze aldera, eta azpikontratistek egingo dituzten lanen zatiek ez dutela kontratuaren prezioaren %30 baino gehiago izango, azpikontratazioari buruzko konpromisoa erantsi beharko da, honako baldintza hauekin:

- a) Hasieran dokumentu pribatuan aurkeztu ahal izango da. Hala ere, enpresa behin-behineko esleipenduna izango balitz, eskritura publikoan dokumentatuko litzateke.
 - b) Azpikontratatzeko asmoa duen kontratuaren zatia eta kontratuaren prezioaren aldean zer ehuneko den adierazi beharko dira.
 - c) Kontratuaren esleipenduna izanez gero, azpikontratatuak dituen enpresen eskura behar beste baliabide jarriko ditu kontratuaren zati hori egiteko.
 - d) Etorkizuneko azpikontrata izenaren bidez identifikatuko da, edo enpresa profilaren bidez. Geroago, esleipendunak beste enpresa batzuk azpikontratatu nahi baditu, SPKLen 210.2 artikulua a) eta c) letretan xedatutakoa beteko ditu.
- Espainiarrak ez diren Europar Batasuneko enpresek eta gainerako enpresa atzerritarrek horrela kreditatu behar dute beren jarduteko gaitasuna eta kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko eta profesionala:

1 Gaitasuna

- Espainiarrak ez diren Europar Batasuneko herrialdeetako enpresek edo Europako Eremu Ekonomikoari buruzko Ituna izenpetu duten herrialdeetako enpresek nahikoa izango dute erregistroan inskribatuta daudela kreditatzea edo HAKLEOko I. eranskinean adierazten diren ziurtagiriak aurkeztea.
- Gainerako enpresa atzerritarrek,
 - Haien herrialdeek Espainian duten misio diplomatiko iraunkorrek edo kontsul-etxeak emandako txostena aurkeztu behar dute. Txosten horrek behar bezala kreditatu beharko du, enpresak hala frogatu ondoren, lanbidezko, merkataritzako edo dagokion alorreko toki-erregistroak inskribatuta daudela, edo, horretarako obligaziorik ez balute, ohikotasunez lan egiten dutela, tokiko lan-eremuan, kontratuaren xedeari dagokion jarduera-esparruan.

- Horrez gain, enpresaren jatorriko herrialdeak Espainian duen Misio Diplomatiko Iraunkorrek edo Ekonomia Ministerioko Kanpo Merkataritzako Idazkaritza Orokorrak emandako txosten bat aurkeztu behar dute. Txosten horretan, dagokion herrialdeak Merkataritzako Mundu Erakundeak kontratazio publikoari buruz adostutako ituna izenpetu duela adierazi behar da.
- Enpresak Espainian sukurtsal bat irekia duela kreditatzen duten agiriak, eta, horietan, zehaztuko da zer ahaldun edo ordezkari dituzten izendatuta enpresa-eragiketarako, eta merkataritza-erregistroan inskribatuta daudela.

2 Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa, teknikoa edo profesionala

Klausula honetako aurreko ataletan adierazitako moduan kreditatuko da. Europar Batasunekoak ez diren enpresa atzerritarrek kreditatu egin behar dute, baldintza hori Espainiako enpresei eskatzen bazaie, sailkatuta daudela, baldintza-orri honetako karatularen **"N" ATALEAN** xedatutako moduan.

- Lizitazioan parte hartzeko, zenbait enpresarik aldi baterako enpresa-elkartea eratzen badute, enpresa bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena egiaztatu beharko ditu, aurreko puntuetan adierazitakoaren arabera, eta, kasuan betetzekoa bada, SPKLko 56.5 artikulua kontratisten sailkapenari buruz arautzen duena aplikatuko zaie.
- Lizitazioa enpresa-elkarteari esleitzen bazaio, kontratazio-organoari kreditatu behar zaio enpresa-elkartea eskritura publiko batean eratu dela, eta ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu beharko da. Ordezkari horrek nahikoa ahalmen izan behar du kontratutik eratorritako eskubideak erabili eta obligazioak betetzeko, harik eta kontratua amaitzen den arte. Enpresa-elkarteen iraupenak bat etorri behar du kontratuaren iraupenarekin, harik eta azken hori amaitzen den arte.
- Enpresen langilerian ehuneko bikoia edo handiagoa bada ezintasunak dituzten langileen ehunekoia, berariaz emandako ziurtagiri bidez edo agiri egokiz frogatu beharko da baldintza hori betetzen dela, baldin eta enpresek SPKLko seigarren xedapen gehigarriak eta Osasun eta Kontsumoko Ministerioak 2001eko abenduaren 17an emandako Aginduak xedatutakoaz baliatu nahi badute.

8.6 "B" gutun-azala: Formula bidez ebaluatu ezin diren irizpideak.

Lizitatzailleak honako dokumentazio tekniko hau aurkeztuko du "B" gutun-azalean:

- a) Erabilitako metodologia. Lanak aurrera eramateko baliatuko den metodologia aipatu, eta lanen helmena zehaztu beharko da. Metodologia ahalik eta modu onenean balioztatzea ahalbidetuko duen informazioa jasoko da, planoak, grafikoak, ilustrazioak, zirriborroak, multimedia aurkezpenak edo eskaintzaileak egoki irizten dituen bestelako baliabideak barne.
- b) Helmena. Plegu honetako zehaztapen teknikoetan, 5. ERANSKINEAN zehaztutako lanei dagokie.
- c) Gauzatze programa. Lanaren edukiaren proposamena jasoko du, bai eta hura gauzatzeko aurreikusitako egutegia ere. Kronograma faseka aurkeztea balioetsiko da.
- d) Lan taldearen deskribapena. Proiektua aurrera eramango duen lan taldea zehaztu behar du enpresak. Taldea osatzen duten pertsonen dagokienez, alor horretan duten gaitasuna eta esperientzia adierazi beharko da.

Era berean, lizitatzailleek kontratu honetan jasotzen diren lanen atalen bat azpikontratatzeko asmorik badute, kontratuaren zein atali dagokion zehaztasunez adierazi beharko dute. Horrekin batera, azpikontratazio horren prezioa eta arduradunen gaitasun tekniko edo profesionala ere adieraziko da.

Azpikontratastak geroago egin dezaketen edozein aldaketa, aldez aurretik EEEn baimenaz egingo da, eta Plegu honen 22. klausula edo atalean xedatutakoa beteko da.

B gutun-azalak ez du edukiko, inola ere, lizitatzailleak eskaintzen dituen baldintza ekonomikoak edo prezioa. Eskakizun hori ez betetzeak eskaintza bazter uztea ekarriko du.

Adierazitako agiri horietakoren bat faltako balitz edo ez badira zorrotz betetzen aurreko ataletan adierazitako alderdiak, eskaintza bazter uzteko aukera izango da.

8.7 "C" gutun-azala: Formula bidez ebaluatu ahal diren irizpideak.

Baldintza-orri honetako 1. ERANSKINEAN jasotako proposamen-ereduari jarraituko zaio (prezioak ezingo du gainditu aurrekontuari ezarri zaion gehienezko zenbatekoa), eta zehaztapen teknikoen txostenak adierazitakoa beteko du. Aparteko kontu-sail batean jasoko da balio erantsiaren gaineko zerga.

Proposamen ekonomikoa bide mekanizatuak erabiliz idatziko da eta izenpetuta aurkeztuko da; horiek horrela, ez dira onartuko gabeziak edo akatsak dituzten proposamenak, ezta eskaintzaren edukia zein den argitasunez jakitea eragotz dezaketen marraketak dituztenak. Alderik balego zenbakiz eta idatziz jasotako zenbatekoen artean, azken hori gailenduko da.

Lizitatuzaileek ezingo dute, SPKLeko 129. eta 131. artikuluei jarraiki, proposamen bat baino gehiago aurkeztu, baina aurkeztutako proposamenek egokitzen irizten dituzten soluzio-bariante guztiak jaso ditzakete; betiere, baldintza-orri honetako karatulako **"M" ATALEKO** eskakizunak eta baldintzak betetzen badituzte. Bariante bat baino gehiago aurkeztuz gero, bariante bakoitzari dagokion proposamen ekonomikoa aurkeztu behar du lizitatuzaileak.

9 PROPOSAMENAK IREKITZEA ETA AZTERTZEA

- 9.1 Proposamenak aurkezteko epea amaituta, lizitatuzaileek aurkeztutako dokumentazioa kalifikatuko da.
- 9.2 SPKLeko 144.1 artikuluan xedatzen dena ez da aplikagarria izango, izaera armonizatua duten kontratuen proposamenen irekitzeaz diharduena.
- 9.3 Eskatutako dokumentazio administratiboa faltako balitz edo aurkeztutako agiriak akastunak badira, ez da onartuko lizitatuzaileak egindako proposamena. Proposamenak akats materialak balitu, HAKLEOko 81. artikulua araututakoa beteko da, eta hiru (3) egun balioduneko epea emango da haiek zuzentzeko. Telefonoa erabiliko da izapide honen berri emateko; zehazki, lizitatuzaileak eskaintzan adierazitako telefono-zenbakia.
- 9.4 Baztertu egingo dira gaitasuna eta/edo kaudimen ekonomiko eta finantzario nahiz tekniko edo profesionala baldintza-orri honetan adierazitako moduan kreditatu ez duten lizitatuzaileak, bai eta, kasu horretan badaude, zerbitzu-enpresen sailkapena kreditatu ez dutenak ere.

10 ESKAINTZA HAUTATZEKO OINARRIZKO IRIZPIDEAK

- 10.1 Lehiaketa esleitu gabe uzten ez badu, esleipena abantailatsuena den proposamenari egiteko aukera izango du EEK, eta, horretarako, ez du, ezinbestean, haren balio ekonomikoari erreparatu behar.
- 10.2 Baldintza-orriaren karatulako **"Q" ATALEAN** adierazitako oinarritzko balorazio-irizpideak baliatuko dira eskaintzak baloratzeko.
- 10.3 Irizpide gehigarri gisa, baldin eta horrela ezarri bada, eta proposamen ekonomikoari dagokienez, positibotzat joko dira lanak egiteko eta epeak betetzeko bermeak aurkezten badira.

10.4 Ildo horretatik, proposamen ekonomikoa ez da izango, berez, erabakigarria, baina esleipen-erabakiaren joera izango da, lehiaketako eskaintzei erreparatu ondoren, egin beharreko lanen arrazoizko baliora gehien gerturatzeko diren eskaintzak hautatzea.

10.5 Baja arinei dagokienez, HAKLEOko 85. artikulua eta SPKLeko 136. eta 174.1.a artikuluek xedatutakoa beteko da.

10.6 Esleipenerako oinarri diren irizpide objektiboak aztertu ondoren, bi lizitatzaileraren edo gehiagoren artean berdinketa balitz, enpresa hau aukeratuko da: kaudimen teknika kreditatzeko unean, lan-plantillan ezintasunak dituzten langileen kopurua langile guztien ehuneko bikoia edo handiagoa duena.

11 ENPRESABURU ESLEIPENDUNA AUKERATZEA

11.1 EEEren iritziz, eskaintza ekonomiko abantailatsuena nork egin duen hautatu ondoren, lizitatzailerari emango zaie erabaki horren berri, erabaki hori Kontratatzaileraren Eskakizuna edo Profilean argitaratuz.

11.2 Eskaintzak baloratu eta enpresaburu esleipenduna hautatzeko gehienezko epea hogeita hamar (30) eguneko izango da, proposamenak aurkezteko epea amaitzen den egunetik aurrera. Epe hori igaro ondoren, erabakia jakinarazi ez bada, lizitatzailerari, egoki irizten badute, beren proposamenak erretiratzeko asmoa dutela jakinaraz dezakete.

11.3 Kontratua sinatu aurretik, zenbait agiri aurkeztu behar dizkio EEERI hautatutako enpresaburuak. Horretarako, zazpi (7) egun balioduneko epea izango du gehienez, agiri horiek eskatzen zaizkion unetik aurrera. Hauek dira agiriok:

- Ziurtagiri positiboa, foru-aldundiak edo, enpresaren lurralde-esparruari erreparatuta, zerga-administrazioko estatu-agentziak emandakoa, zerga-betebeharrak egunean betetzen dituela adierazten duena.
- Gizarte-segurantzarekiko obligazioak egunean betetzen dituela kreditatzen duen ziurtagiri positiboa; edo, halakorik ezean, dagokion mutualitateko alta-agiria.
- Behin betiko bermea eratu izanaren frogagiria, baldin eta betebeharrak hori finkatu bada karatulako **"H" ATALEAN**. Plegu honetako III. eranskinaren ereduaren arabera eratu da bermea.
- Aseguru enpresak egiaztatuta, aseguru guztien egokitzapena, estaldura eta indarrean dauden dokumentuak, Plegu honen 20. atalean jasotzen diren baldintzen arabera.

EEEko sarrera-erregistroan aurkeztu behar dira agiri horiek guztiak.

12 KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA

- 12.1 EEEK bere gain hartzen du eskaintzaren edukia egiaztatzeko gaitasuna, bai eta kontratuaren formalizazioaren aurretiko dokumentazio administratiboa egiaztatzekoa ere.
- 12.2 Kontratuaren formalizazioa enpresariari bere eskaintza onartua izan dela jakinarazi ondorengo egunean hasiko da, eta hamar (10) egun naturaleko epean egingo da.
- 12.3 Kontratuaren formalizazioaren bitartez, EEEK kontratuzko onarpena adierazten du eta modu horretara, kontratua perfektionatzen da.
- 12.4 Kontratuak bere baitan bilduko ditu EEEK kontratatzeke dituen barne arauetan jasotako aipamenak.
- 12.5 Kontratua ezin izango da formalizatu enpresariak baldintza-orri honetan zehazten diren dokumentu guztiak aurkezten ez baditu. Kontratua enpresariari egotz dakizkion arrazoiengatik formalizatuko ezin balitz, EEEK behin-behineko bermea konfiskatzeko eskubidea izango du, horrelakorik izango balitz. Behin-behineko bermerik ez balego, enpresariak EEEri kalte-ordaina eman beharko dio. Kalte-ordaina gehienez ere kontratuaren aurrekontuaren ehuneko hirukoa izango da.
- 12.6 Kontratua dokumentu pribatuan formalizatuko da, eta formalizazio horretatik eratorritako gastu eta zerga guztiak hautatutako enpresariak ordaindu beharko ditu.
- 12.7 Kontratua enpresa-talde bati esleituz gero, enpresa horiek talde horren eraketa frogatu beharko dute eskritura publiko baten bitartez eta kontratuaren formalizaziorako zehaztutako epean. Enpresa-taldeari emandako IFZ ere aurkeztu beharko dute.
- 12.8 Esleipendunak isilean gorde beharko ditu kontratua dela eta ezagutuko dituen eta kontratuarekin zerikusia duten ezkutuko datu eta aurrekari pribatuak.

13 KONTRATUA GAUZATZEA

- a) Kontratua klausula eta pleguetan ezarritakoari atxikita beteko da, eta kontratazio-organoak, honen ordezkariak edo kontratuaren arduradunak kontratistaren esku utz ditzakeen interpretazio jarraibideen arabera.
- b) Kontratua kontratistaren arrisku eta zoriaz beteko da.
- c) Kontratistak bere gain hartuko du garatutako lanen eta burututako eginkizun eta zerbitzuen kalitate teknikoaren ardura, baita EEErentzat edo hirugarrenentzat kontratua betetzean gerta daitezkeen hutsegite, akats, metodo desegoki edo ondorio okerrek eragindako ondorioen erantzukizuna ere.

d) Kontratua behar bezala betetzeko, kontratistak konpromisoa hartzen du informazio osagarria eta laguntza teknikoa emateko (dokumentuak eta mota guztietako informazioa).

e) Lanak egiten diren bitartean, kontratuaren aplikazio zuzenaren eta istripu edo kalteen, pertsonen, materialei eta hirugarrenei gerta dakizkienak, ardura kontratistarena izango da

f) Kontratua indarrean dagoenean eta kontratua amaitu ondoren, kontratista derrigortuta dago isilpeka gordetzera kontratuaren helburuekin zerikusia duten datu eta aurrekariak, bereziki jakinak eta agerikoak ez direnak, baita kontratua bete ahala ezagut ditzakeenak ere.

g) EEEK ez dio ordainduko kontratistari kontratuan zehaztuta ez dagoen ezein lan edo kontratazio-organoak edo kontratuaren arduradunak alde aurretik baimendu ez duen ezein lan.

h) Kontratua amaitutakoan, kontratu honetan aipatzen diren lanen jasotze ekitaldi formala egingo du EEEK. Une horretatik aurrera, Plegu honetan aurreikusten den bermearen epea hasiko da.

14 KONTRATUAREN ALDAKETA

a) Ezustekoei eta egoera berriei aurre egin ahal izateko EEEK zerbitzu-kontratua aldatzeko gaitasuna izango du, baina aldaketa horrek ezin izango du hasierako kontratuaren ehuneko 20a gainditu. Kontratistak derrigorrean onartu behar ditu aldaketa horiek. Aldaketek, kasu bakartuetan edo bere osotasunean ehuneko hori gaindituz gero, kontratistak kontratua eten dadin eskatzeko eskubidea du. Kontratuzko aldaketen prezioa bi aldeek zehaztuko dute, bakoitzak bere prezioak ezarriz eta horiek negoziatuz.

b) Kontratistak ezin izango du inolako aldaketarik egin kontratuaren xedeari dagokionez, alde aurretik adostasunez egin ez bada, eta hala badagokio, kontratazio-organoak ezarritako aurrekontuaren gainean.

EEEren oniritzia edo baimena ez duten aldaketek erantzukizuna ekarriko diote kontratistari, eta horiek eragin ditzakete gastuak kontratistaren kontura joango dira.

15 KONTRATUAREN LUZAPENA

Baldintza-orri honetako Karatulan aurreikusten diren baldintzak betez luza

daiteke kontratua.

Aurreikusitako luzapenak gertatuko balira, kontratuaren prezioa hasieran zehaztutakoa izango litzateke, baina, luzapeneko urte bakoitzean berraztertu egingo da aurreko urteari dagokion KPIa aplikatuz. KPIa Estatistikako Institutu Nazionalak ezarritakoa izango da.

16 PREZIOAREN ORDAINKETA

Kontratatik EEEren adostasunarekin burututako eta emandako lanengatik ordainsaria jasotzeko eskubidea izango du, lanei dagozkien fakturak aurkeztuta.

Plegu honetako karatulan adierazten da prezioaren ordainketa nola egingo den.

Inola ere ezingo da ordainketarik egin kontratua formalizatu arte.

Kontratuaren arduradunak emandako berariazko baimena jaso ezean, kontratatik ez du egindako hobekuntzak kobratzeko eskubiderik.

Plegu honetan jasotzen den bezala, EEEk kontratatari ezarri ahal dion zigor ekonomikotik prezioa kentzeko eskubidea du.

17 EPEAK ETA BERANDUTZEAGATIKO ZIGORRAK

a) Kontratista derrigortuta dago kontratua Plegu honetako Karatulan finkatutako epeetan gauzatzera; baita proposamen teknikoarekin batera aurkeztutako lan-plangintzan jasotzen dena ere.

b) Kontratista edozein epeetan berandutu egin dela jotzeko, ez da beharrezkoa izango EEEk alde aurretik ohartarazpenik egitea. Atzerapen horiei dagozkien zigorrak EEEk ezarriko ditu automatikoki.

c) Azken epea amaitu eta kontratista berandutu egin bada berari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla eta, EEEk adostutako azken prezioaren %20ko zigorra ezar diezaiolke.

Zigoren zenbatekoak ez du kanpo uzten EEEk kontratistaren berandutzeagatik sortutako kalte-galerak direla kausa eska dezakeen kalte-ordaina, ez eta EEEk kontratua suntsiarazteko duen eskubidea ere.

d) Era honetako zigorrak ezartzeko prozeduran kontratatari alegazioak egiteko aukera eman beharko zaio derrigorrez, kontratuaren arduraduna entzun ondoren.

18 KONTRATISTAK KONTRATUA AKATSEZ BETETZEA EDO ZATIKA BETE GABE UZTEA

EEEk zehaztuko du kontratistak egindako lana gauzatze eta betetze-aldiari begira ezarritako preskripzioekin bat datorren ala ez, eta behar izatekotan, kontratatutako zereginak bete ditzala edota harrera aldian igarritako akatsak konpon ditzala eskatuko dio. Zuzenketa horiek egiteko epea zazpi (7) egunekoa izango da gehienez ere.

Egindako lanak ez badatoz bat kontratatutako zereginekin, kontratistari egotz dakizkiokeen akatsak edo hutsegiteak medio, EEEK lan horiek errefusatu eta ordainketa egitetik salbuetsita geratzeko aukera izango du, eta horrekin batera, kontratua bera indargabetu ahal izango du, eta kontratistari, zigor gisa, hamar mila (10.000) euro eskatu ahal dizkio.

Zigor horien barruan ez daude, kalte-ordain moduan, EEEK jasotzeko eskubidea izan dezakeen diru kantitatea, kontratistak epeak eta beste ez betetzeagatik sor daitezkeen kalteen ondorioz.

19 KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK

19.1 Lan arriskuen prebentzioa

Esleipendunak bete eta bere ardurapeko langileei betearaziko dizkie lan legeriak arriskuen inguruan xedatutako arau guztiak; baita aplikagarria zaien Lan Ituna, eta bereziki, Lan Arriskuen Prebentzioaz diharduen azaroaren 8ko 31/1995 Legeak dioena bete eta betearaziko du.

19.2 Betebehar laboral eta sozialak

a) Kontratistak, esleitu zaion lana egiteko kontratatzen dituen langileei dagokienez, indarrean dagoen gai laboralei buruzko araudia eta Gizarte Segurantzari, ezinduen integrazio laboralari eta lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudiak bete behar ditu. Gizarte-formazioarekin zerikusia duten azken araudi horien kasuan, azpikontratatuak –halakorik izanez gero– bere langileei dagokienez, indarrean dagoen gai laboralei buruzko araudia beteko duela ziurtatu behar du kontratistak.

b) Kontratu hau betetzeko aplikagarria diren heinean, kontratistak espresuki adierazi behar du higiene, segurtasun eta ingurumen alorreko araudi eta legeak bete eta betearazteko bitartekoak, gaitasuna eta ezagutza dituela, eta kontratua betetzean horrelako gaien inguruan gerta litezkeen erreklamazioei aurre egiteko konpainiak ez du inolako ardurarik.

c) Kontratistak bere menpeko langile guztiei babesteko ekipo homologatuak

eman behar dizkie, kontratuan aurreikusten diren lanen segurtasunak edo arriskuak hala eskatzen badu, aplikagarria izan dakioken lan arriskuak prebenitzeko planaren arabera. Horrekin batera, langile horiek ekipoak behar bezala erabiltzeko prestakuntza jaso dutela bermatu behar du.

d) Kontratista behartuta dago lana baldintza duinetan egiten dela bermatzera, bai bere enpresan, bai hark azpikontratutako enpresetan (halakorik izanez gero). Horrez gain, langileei dagokien sektoreko hitzarmenak beteko dira, batez ere pertsonalaren subrogazioari dagokionez.

e) Lanei atxikitako beharginek kontratistaren menpe jardungo dute, eta honek enpresariari dagozkion eskubide eta betebeharrak izango ditu beharginen gainean.

f) Kontratua hau sinatzeagatik EEEK ez du inolako betebeharrak eta erantzukizunik izango gizarte eta lan betebeharren inguruan, legez kontratistak bere menpeko langileekin dituenak, alegia. Nolanahi ere, kontratistak konpromisoa hartzen du EEEri erreklamaziorik ez eskatzeko, haren langileek edo beste batek aipatutako betebeharrak izan ditzaketan arazoan aurrean.

g) Orokorrean, kontratistak aurre egin beharko die enplegatzaile gisa dagozkion betebeharrak, bai eta kontratistak edo honen azpikontratatuek langileekin dituzten lan-harremanak edo bestelakoak erregulatu eta garatzen dituzten arauak betetzetik datozkienei ere, eta EEEri ez zaizkio leporatuko horietako edozein ez betetzeak sor ditzakeen isun, zigor edo bestelako erantzukizunak. Edozein kasutan, kontratistak oso-osorik ordainduko dio EEEri. Plegu honetako betebeharrak ez betetzeak zehaztuta daukan kalte-ordaina, nahiz eta ebazpen judizial edo administratiboak ezarritakoa izan

h) EEEK hala eskatzen badiu, kontratistak dokumentatuta egon daitezkeen betebeharrak betetzen direla egiaztatzen duten dokumentu guztiak aurkeztuko dizkio. Aurkezten ez badiu edo justifikatu gabeko luzapena gertatzen bada, kontratuan ezarritako betebeharrak bat ez dela betetzen ulertuko da, eta, beraz, EEEK kontratua bertan behera uzteko eskubidea izango du, 26. klausulan edo atalean adierazten den moduan.

i) Kontratua iraungita, ezin izango dira inola ere EEEko langile bihurtu kontratuan zehaztutako zereginetan jardun duten beharginak.

j) Kontratistari egokituko zaizkio, eta bere kontura joango dira, kontratua betearazteak ekarri ahal dizkion kostu guztiak.

k) Behar bezala justifikatuta ez dauden atzerapenak edo dokumentazioa ez aurkezteak ekarriko du kontratua ez betetzea, eta, beraz, EEEK bertan behera utz dezake kontratua, 26 atalean jasotzen den moduan.

19.3 Ingurumenari buruzko betebeharrak

Kontratatik eta bere ardurapeko azpikontratek egingo dituzten lan guztietan saihestuko dituzte kalte edo eragin kaltegarria ingurumenean, animalietan eta landaretan, eta egin beharreko lanen ondorioz eragingo diren gorabehera edo kalteak ekiditeko edo murrizteko erabaki edo neurri guztiak hartuko ditu.

Ingurumen alorrean agintari eskudunek emandako eta ezarritako lege, araudi eta gomendio guztien arabera egingo ditu lan guztiak kontratatik. Horretaz gain, EEEK eman ditzakeen arau guztiak ere beteko ditu, eta bete ezean, kontratista bera izango da arduradun bakarra.

19.4 Hirugarrenen baimenak

EEEk bere kabuz egin ditzakeen kontratuzko eragiketarik eta kudeaketa-lanak alde batera utzita, kontratatik bere lana egiteko beharrezkoak diren baimen eta lizentziak lortu beharko ditu, haiek norbanakoei, elkarteei, enpresei eta erakundeei eskatuz. Baimen horiek lortzeko zerbait ordaindu beharko balitz, diru-kopuru hori ere kontratatik ordaindu beharko du.

20 ASEGURUAK

1.- Kontratuak honako aseguru hauek eduki behar ditu:

- a) Erantzukizun zibil profesionalaren aseguruak. Aseguru honek EEErentzat diharduten profesionalak (abokatu, ingeniari, ingeniari teknikoek...) beste bati eragin ahal dizkieten kalte edo zauriak, pertsonalak edo materialak, estaltzeko bermea eman behar du.

Aseguru hau ospe handia duen aseguru enpresa batekin sinatu behar da, eta gutxieneko kalte-ordaina ez da 300.000 euro baino txikiagoa izango.

- 2.- Kontratuari lotutako lanei ekin aurretik, kontratatik egindako aseguruaren kopia edo egiaztagiria emango dio EEEri, eta horien baldintzei eta indarraldiari lotutako aldaketen berri eman beharko du. Baldintza horiek aldatuko lirarteke, behar izanez gero, EEEren iritziz.

- 3.- Kontratatik dokumentu honetan aipatzen diren aseguruak kontratatzen ez baditu, edo aseguruak indarrean daudela egiaztatzen dituzten agiriak hogeita hamar (30) egun naturaleko epean aurkeztu ezean, EEEK aseguru horiek egiaztatzeko agiriak aurkezteko eskatzen duen egunetik kontatzen hasita, ordainduta daudela argi nabarmenduz, EEEK eskubidea izango du antzeko estaldura izango duten aseguruak kontratatzeko, eta horien kostuak kontratatzailearen kontura joango dira eta, hala dagokionean, EEEK kontratatikari egin beharreko ordainketatik kenduko dira.

4.- Aseguruen inguruan kontratistari begira ezarritako eskakizun guztiak azpikontratistei ere eragingo dizkiete, betiere modu egokian eta arriskuen proportzionaltasunaren arabera, eta alor honetan hutsune edo gabeziaren bat izanez gero, EEERI eman beharko dizkio azalpenak.

5.- Aipatutako aseguru edo polizetan aldaketarik izanez gero, bertan behera edo berritzeak egiten badira, adibidez, kontratistak EEERI jakinaraziko dio. Era berean, EEERek hala eskatzen baldin badiu, kontratistak aseguruaren kontratuen kopiak eta ordainduta daudela egiaztatzen dituzten dokumentuak erakutsiko dizkio

Kontratistak egiaztatzen edo bidaltzen ez baditu eskatutakoa, bere aldetik kontratua ez betetzea lekarke.

6.- Kontratistaren kargura izango diren arrisku, betebeharrak eta erantzukizunak ez dira mugatzen klausula honetan aipatzen diren aseguruaren kontrataziora. Hori horrela, hartutako arriskuetatik erator daitezkeen betebeharrak eta erantzukizunak ez dira soil-soilik sinatutako aseguruaren zenbatekoetara mugatuko, EEERen edo besteren kaltean gauzak gertatuz gero.

7.- Atal honetan aipatutako aseguru guztien kostua kontratistak ordaindu beharko du.

21 EGINDAKO LANEN JABETZA ETA DATU PERTSONALEN ERABILERA

21.1 Egindako lanen jabetza

EEERen jabetzapekoak izango dira jasotako zerbitzua eta egindako lanei dagozkien eskubideak, baita hauen jabego industrial eta komertziala ere, EEERen esku egonik horien erabilera, beste inork merkaturatu, berregin edo beste era batez erabiltzeko aukerarik izan gabe EEERek espresuki baimentzen ez badu, eta ondorioz, honek jabegoari dagozkion agiri edo materialak ematea eskatu ahal izango du, aurrekariak, datuak eta prozedura guztiak barne.

Jabego intelektual edo industrialaz babestutako produktuak garatzea eta erabiltzeko moduan jartzea xede duten zerbitzu-kontratuek EEERen esku utziko dute aipatutako jabego intelektual edo industrialak.

Jabego intelektualari atxiki dakizkiokeen lanak EEERI eskusibaz emandakoak direla ulertuko da, salbu eta alde aurretiko eskubideak dauden kasuetan, halakoetan emakida eskusibotasunik gabe egin daiteke eta.

Kontratua indargabetu ahal izango da, baldin eta egiaztatzen bada kontratistak kontratugaitzat jo daitezkeen lana, osorik nahiz zatika, hirugarrenen esku utzi duela EEERen baimenik gabe. Kontratua

indargabetzeko kausa hau gertatzekotan, kontratistak kontratua bete gabe utzi duela ulertuko da ondorio guztietarako.

21.2 Datu pertsonalen erabilera

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa betez, kontratu honen gauzatzearen ondorioz, EEEk aginduko dion eran erabiliko du informazioa kontratistak, eta kontratuarekin zerikusia ez duen zereginetarako ez du erabiliko, ezta beste pertsona batzuei emango ere.

22 LAGAPENA ETA AZPIKONTRATAZIOA

a) Kontratuaren lagapenerako legezko eskakizunei dagokionez, SPKLen 209 artikuluan zehaztutakoa bete beharko da. Dena dela ere, EEEk alde aurretik eta berariaz baimendu beharko du kontratuaren lagapena.

Kontratua ezin izango da laga, berau esleitzeko arrazoi erabakigarriak jatorrizko kontratistaren gaitasun pertsonal edo teknikoak izanez gero.

b) Kontratuaren prezioaren ehuneko hogeita hamar (%30) gehienez ere azpikontrata daiteke. Kantitate horretatik gora izango duten proposamenak ez dira onartuko. SPKLen 210 artikuluan zehazten diren xedapenak bete behar ditu. EEEri azpikontratu hori adierazten dion idatzian, aipatutako xedapen horiez gain, azpikontratua egikaritzeko baldintza teknikoak ere azaldu beharko dira.

Nolanahi ere, azpikontratazioek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- (i) Kontratistak alde aurretik jakinarazi behar dizkio EEEri idatziz egin nahi dituen azpikontratu guztiak, azpikontratista bakoitzari lotutako kontratuaren aldea adieraziz.
- (ii) EEEk alde aurretik onartu behar du.

Hala ere, jakinarazitako azpikontratazioa ez onartzeko eskubidea bere gain hartzen du EEEk, baldin eta proposatutako azpikontrataren gaitasun teknikoa nahiko egiaztatuta ez bada, edo azpikontratua gauzatzeko baldintza teknikoak aski bermatuak ez badaude.

Azpikontratatuak jatorrizko kontratistaren mende geratuko dira eta jatorrizko kontratista hori izango da, EEEri dagokionez, Plegu honetan eta kontratuan zehazten diren betebeharren ardura izango duena.

23 HIZKUNTZA BALDINTZAK ZERBITZU KONTRATUETAN

Azterlanak, txostenak, proiektuak eta kontratu honi lotutako gainerako lanak EAEko hizkuntza ofizial bietan egingo dira. Horren barruan sartzen dira software guztien testuzko eta entzunezko interfazeak.

Kontratuak herritarrei zerbitzuak ematea eskatzen duenean, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresaren eta zerbitzuaren erabiltzailearen arteko ahozko komunikazioetan eta komunikazio idatzietan erabiltzaileak aukeratutako hizkuntza erabiliko da.

Berariaz inolako aukerarik egiten ez bada, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresak pertsona fisikoei eta juridikoei egiten dien era guztietako jakinarazpen eta komunikazioak hizkuntza ofizial bietan egingo dira, fakturak eta zirkulazioko bestelako agiriak barne. Hala ere, prestazioaren jasotzaileak edozein unetan erabil dezake hizkuntza aukeratzeko eskubidea eta, ondorioz, nahi duenean eskatu ahal izango du hizkuntza ofizialetako bakar bat erabiltzea.

Administrazio kontratu-egilearekiko harremanetan, normalean euskara erabiliko da. Kontratua gauzatzeari begira, hauxe da "normalean euskara erabiltzea": a) ahozko komunikazioetan, euskaraz dakien langileek euskaraz egingo dute, hasiera baten, kontratua gauzatzeko zereginak direla eta administrazio kontratu-egilearekin harremanetan jartzen direnean. Administrazio kontratu-egilea euskaraz zuzentzen ari den langile bati eta horrek hizkuntza behar bezala menperatzen ez badu, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresak berehala jarri beharko ditu euskara behar bezain ondo dakiten langileak edo bitartekoak, kontratuaren ondorioz administrazioarekin burutu beharreko harremanak euskaraz izan daitezzen, eta b) komunikazio idatziak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, salbu eta igorleak eta hartzaileak euskara hutsean egitea erabakitzen badute.

24 KONTRATUAREN ARDURADUNA

Izaera teknikoko erabakiak hartzerakoan, EEEK kontratuaren arduraduna izenda dezake, kontratistak egindako lanen gaineko aholkularitza eta ikuskapen lanak egin ditzan, eta kontratazio-organoaren edo honek ordezkariatzat aukeratzen duen pertsonaren eskumena izango da kontratuaren arduradunak kontratuaren garapenaz egindako jarraipenaren ondoriozko erabakiak hartzea.

Era berean, aintzat hartuko ditu Plegu honetan egotzitako zereginak. Kontratazio-organoak kontratuaren arduradunaren esku utz ditzake kontratuaren burutzapenaz dituen eskubide eta ahalmenak, guztiak edo batzuen batzuk.

25 KONTRATUAREN IRAUNGIPENA/DEUSEZTAPENA

Amaitu delako, bete delako edo eten delako iraungiko da kontratua.

Kontratua iraungitzeko arrazoiak baldintza-orri honetan, Kode Zibilean eta SPKLen 206 artikuluan zehazten direnak izango dira. Baita honako arrazoi hauek ere:

(i) Baldin eta kontratua gauzatzeko garaian, hirugarrenen ekintzen ondorioz, kontratua gauzatzea ezinezkoa balitz ikuspuntu tekniko nahiz ekonomikotik, bidezkoa litzateke, EEEK egokitzat jotz gero, kontratua indargabetzea, eta ondorioz, kontratistari EEEK eskatu eta bere horrexetan gauzatutako lanak ordainduko litzaizkioke soilik, arrazoi honengatik EEEri kalte-ordaina eskatu edo erreklamazioa egitea bidegabekoa delarik.

(ii) Kontratistaren berandutza kontratuan adierazitako lanak egiteko epea betetzerakoan.

(iii) Kontratuan ageri diren gainerako funtsezko betebeharrak ez betetzea.

Ezarritako baldintzen arabera arrazoi hauetako edozein gertatuz gero, EEE baimenduta egongo da kontratua indargabekotzat jotzeko, eta Plegu honen eta indarreko araudiaren arabera dagokion kalte-galeren ordaina eskatu ahal izango du, betearazpen subsidiarioaz baliatzeko aukera barne, egin gabe geratu diren betebeharrak gauzatzuz edota lanak gauzatzuz jarraituz, berez edo egokitzat jotzen dituen pertsona edo enpresen bitartez, kontratistaren kontura.

26 JURISDIKZIO ESKUDUNA

Jurisdikzio Zibileko Epaitegiak izango dira (SPKLen 21.2 artikulua) kontratu hau prestatzean, esleitzean, interpretatzean, betetzean eta amaitzean sor daitezkeen auziak erabakitzeke eskudunak, eta bi aldeak borondatez jartzen dira Bilboko epaitegi eta auzitegien mendean. Era berean, berariaz egiten diete uko erabilgarri izan ditzaketan bestelako foroei.

I. ERANSKINA
PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA GAUZATZEKO EPEA

Izen-abizenak:

Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia:.....

Ordezkatzen duen enpresa:

Enpresaren Identifikazio Fiskaleko Kodea:

Enpresaren bulegoen helbidea:

.....

Datu horiek Kontratatorako Oinarrizko Baldintzetan agertzen den eran frogatu ostean, hau adierazten dut:

1. IBILGAILU INDUSTRIALAK ERAGINKORTASUNEZ GIDATZEKO IKASTAROAK EMATEKO kontratua esleitzeko antolatutako LEHIAKETAREN berri emateko EEEren Kontratatzailearen Profilean argitaratutako iragarkia ezagutzen dut.
2. Baldintza Teknikoen Pleguak, Oinarrizko Baldintzenak eta gainerako dokumentazioa aztertu eta ezagutzen dut.
3. Kontratatorako Oinarrizko Baldintzen Pleguaren lehen klausulan aipatzen diren legezko eta arauzko testuak ere ezagutzen ditut.
4. Horiekin ados nago eta borondatez, bere osotasunean eta aldaketarik gabe onartzen ditut 2. eta 3. ataletan adierazten diren legezko eta arauzko dokumentu eta testuak.
5. Esleipenduna gertatuz gero, aipatutako kontratua gauzatzeko konpromisoa hartzen dut, gehieneko prezio hauen arabera: ... euro; gehi BEZari dagokion ... euro. Beraz, guztira ... euro.
6. Aipatutako kontratua auzatzeko konpromisoa hartzen dut, eta Gehieneko banakako prezioa (BEZa gabe) ikastaro bakoitzean, ibilgailu industrialen (autobusak eta kamioiak) gidariei emango zaiena, hauxe izango da: ... euro; gehi BEZari dagokion ... euro. Beraz, guztira ... euro.

[...]n, 2009ko []aren(e)an.

[Enpresaren/lizitatzailearen izena].
Ahalordez.

II. ERANSKINA

LIZITATZAILEAREN ARDURA-ADIERAZPENA, ADMINISTRAZIO PUBLIKO EKIN KONTRATATZEKO DEBEKURIK EZ DUELA EGIAZTATZEKO

Izen-abizenak:

Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia:

Ordezkatzen duen enpresa:

Enpresaren Identifikazio Fiskaleko Kodea:

Enpresaren bulegoen helbidea:

.....

ADIERAZTEN DUT: Egiaztatzen dut ez nik, ez ordezkatzen dudan merkataritza-sozietateak ez dugula urriaren 30eko 30/2007 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 49. eta 50. artikuluetan araututako kontratatze debekurik. Halaber, indarrean dauden xedapenekin bat etorritik, egiaztatzen dut enpresak egunean betetzen dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak. Hori guztia egiaztatzen duten agiriak eta dokumentuak aurkezteko konpromisoa hartzen dut kontratua formalizatu baino lehen, horren esleipenduna izango banaiz.

[...]n, 2009ko []aren(e)an.

[*Enpresaren/lizitatzaillearen izena*]

Ahalordez

III. ERANSKINA

BANKU-ABALAREN EREDUA (BEHIN BETIKO BERMEA)

[...] bankuak, (aurrerantzean, **“Bankua”**) eta haren izenean eta ordezkaritzan [...], egintza hau egiteko bezainbat aginpide duenak, [...] notarioaren aurrean, [...] protokolo-zenbakiarekin, [...] egunean emandako ahalmenaz baliaturik, eta aldatu ezta kendua ere izan ez dena.

ABALATZEN dio [...] sozietateari (aurrerantzean, **“Sozietatea”**), lehen eskarian eta era solidarioan, .I.F.K.: [...], eta [...] helbidea duenari, [...], [*Erakunde Kontratatzailearen izena*] aurrean (aurrerantzean, **“Onuraduna”**), I.F.K.: [...], eta [...] helbidea duena, [...] euroko gehieneko zenbatekoraino (aurrerantzean, **“Bermatutako zenbatekoa”**), [*kontratuaren izena idatzi*] xedea duen kontratua modu egokian garatu eta gauzatzeko, [...] datarekin Sozietateak eta Onuradunak sinatutako kontratua, eta Bankuak ezagutzen duela adierazita.

Abalaren baldintzak hauexek dira:

- (i) Bankuak berriaz uko egiten die ondasunen ordenari, eskusioari eta zatiketari; baita defentsa agertarazteko era guztiei ere.
- (ii) Abal honek izaera abstraktua du: beraz, Onuradunak ez du zertan adierazi edo justifikatu bermea gauzatzeko dituen arrazoiak, eta bermearen kontura ordainketaren eskariaren aurrean, Bankuak ezin izango du oztopo edo eragozpenik jarri, Sozietateak jar ditzakeen eragozpenak edozein direla ere.
- (iii) Onuradunak eskatzen duen diru kantitatea ordaindu beharko dio Bankuak bost (5) egun naturaleko gehieneko epean, idatziz edo beste modu batez [...] helbidera egiten den eskariaren egunetik kontatzen hasita.
- (iv) Onuradunak eskatuko duen diru-kantitatea ordainketa batean edo bitan egingo dio Bankuak, onuradunak esango dion eran; betiere Bermatutako zenbatekoa gainditzen ez bada.
- (v) Onuradunak emandako bankuaren kontu-korrontean egingo dira ordainketak, kenketarik gabe, honako arrazoiak hauengatik: zergak, eskubideak, karguak, konpentsazioak, erreklamazioak, eta oraingo edo etorkizuneko kenketa edo atxikipenak.
- (vi) Abal honen iraupena mugagabea izango da, Onuradunak baliogabetzeko baimena eman arte, idatzizko adierazpen baten bidez.
- (vii) Berme hau Espainiako zuzenbidearen arabera arautzen da. Gerta daitezkeen auziak erabakitzeke bi aldeak jartzen dira Bilboko epaitegi eta auzitegien mende. Era berean, berriaz egiten diete uko erabilgarri izan ditzaketen bestelako jurisdikzioei.

Berme hau Bermeen Erregistro Ofizialean erregistratu da, [...] zenbakiarekin, 200[](e)ko []aren(e)an.

[Lekua eta eguna]

[Erakundearen izen soziala]

[Ahaldun(ar)en sinadura]

IV. ERANSKINA

EKONOMIA JARDUEREN GAINKO AITORPENAREN EREDUA

Izen-abizenak:

Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia:

Ordezkatzen duen enpresa:

Enpresaren Identifikazio Fiskaleko Kodea:

Enpresaren bulegoen helbidea:

.....

Nire erantzukizunpean, adierazten dut:

Tokiko zergei buruz indarrean dagoen araudiaren eta, zehazki, Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren araupenaren arabera, jarraian zerrendatzen diren epigrafeetan zerga horren matrikulan alta ematera behartuta dago enpresa, eta ez du bajarik hartu zerga horretan:

.....
.....
.....
.....
.....

[...]n, 2009ko []aren(e)an.

[Enpresaren/lizitatzaillearen izena]

Ahalordez

V. ERANSKINA

ZEHAZTAPEN TEKNIKOEN TXOSTENA

1.- Egitasmoa

Ibilgailu industrialen bat (autobusak eta kamioiak) gidatzen dutenei gidatzeari buruzko banakako ikastaroak ematea; baita ibilgailu industrialen (autobusak eta kamioiak) gidabaimena eskuratzeko Irakaskuntza Sistemari integratutako autoeskoletako irakasleei ere.

2.- Helburua

Ikastaroen helburua da ibilgailu industrialak gidatzeko era berri bat sustatzea. Era horretan, erregai-kontsumoa nabarmen gutxitzen da, %10eraino irits daitekeena, gidatze konbentzionalaren aldean.

3.- Kontratistaren lanaren nondik norakoa

Enpresa esleipendunak egin beharko duen lanaren nondik norakoa hauxe da: ibilgailu industrialen (autobusak eta kamioiak) gidatze eraginkorrari buruzko ikastaroak ematea, Euskal Autonomia Erkidegoko edozein tokitan, Energiaren Euskal Erakundeak zehaztuko duen lekuan, hain zuzen ere. Prestakuntza jasoko duten ikasleen arabera, honako bi ikastaro mota hauek emango dira:

- Ibilgailu industrialen bat (autobusak eta kamioiak) gidatzen dutenei gidatzeari buruzko banakako ikastaroak.

Ikastaro hauek praktikoak izango dira, eta irakaskuntzako profesionalek eman beharko dituzte, gidatze eraginkorrari lotutako teknikak ezagutzeaz gain, prestakuntza mota honetan esperientzia izan behar dutenak.

- Ibilgailu industrialen (autobusak eta kamioiak) gidabaimena eskuratzeko Irakaskuntza Sistemari integratutako autoeskoletako irakasleei emateko ikastaroak.

Ikastaro hauek praktikoak izango dira, eta irakaskuntzako profesionalek eman beharko dituzte, gidatze eraginkorrari lotutako teknikak ezagutzeaz gain, prestakuntza mota honetan esperientzia izan behar dutenak.

Prestakuntza ikastaro horiek emateko, erakunde prestatzaileak kontsumo-neurgailuak dituzten ibilgailuak eduki behar ditu. Horrekin batera, ibilgailu

industrialen gidatzean eskarmentu handia eta bereziki prestatutako langileak izan behar dira.

Prestakuntza, nagusiki, modulutan egituratuko da, egunbeteko iraupena (8 ordu) eta hamar ikaslez osatutako moduluetan. Prestakuntza edo ikastaroak teoriko eta praktikoak izango dira, eta kontsumoak konparatu egingo dira.

Modulu bakoitzean honako baliabide hauek behar dira: bi prestatzaile eta Euro 4, Euro 5 edo VEM minimo dituzten bi ibilgailu industrial (kamioien kasuan, 300 HP, atoaia eta bost ardatzekoak; eta autobusenean, aldiz, 12 metro luze izatea), kontsumoa neurtzeko tresnak dituzten ibilgailuak, hain justu ere. Prestakuntza emango duen enpresak jarriko ditu ikastaroak emateko behar diren materialak eta zerbitzu guztiak.

Prestakuntzan parte hartuko duten pertsonen gidatze eraginkorraren teknikei buruzko eskuliburu bana emango zaie. Horretaz gain, bertaratze egiaztagiria ere emango zaie. Aipatutako eskuliburuak EEEk emango dizkio trebakuntzaz arduratu den enpresari. Bertaratze egiaztagiriak, aldiz, enpresa esleipendunak emango ditu, eta EEEri bidaliko dizkio sinatzeko eta ikastaroetan parte hartuko dutenei igortzeko.

Ikastaroak astelehenetik larunbatera egingo dira, eta gaitasun zein toki egokia izango da, giza baliabide eta bitarteko material aldetik, gutxienez 10 pertsona/eguneko prestakuntza ikastaroak emateko. Zenbaitetan, EEEk eska lezake ikastaroak igandean emateko.

Esleipendunak ibilgailuak jarriko ditu, ikastaroen proba praktikoak egiteko behar diren teknologia eta tresnak izango dituztenak. Estetika eta garbitasun aldetik ondo egoteaz gain, ibilgailu horiek behar bezala erabiltzeko moduan ere egongo dira.

Kontratastak egoki trebatutako begiralek jarriko ditu ikastaroak emateko, prestakuntza mota honetan esperientziadunak eta gidatze eraginkorraren teknikak ezagutzen dituztenak. Ikastaroetan erabil daitekeen material osagarria (power-point-ean aurkezpenak eta abar) kontratastak prestatuko du, eta alde zuzenetik, EEEren oniritzia eduki beharko du.

Proba praktikoa egiteko ibilaldia diseinatzea kontratastaren ardura izango da; baita ikastaroa egiteko ikasgela jartzea ere. Kasu gehien-gehienetan, ikasgela hori ikastaroa kontratatzen duen erakundeak jarriko du.

Ikastaroetan parte hartuko duten ikasleen izena emateko, erabiliko den materiala egokitzekeo prentsaurrekoak emateko eta horrelakoak egiteko, kontratastak egoki deritzen erakunde, giza talde eta pertsonekin harremanak izango ditu. Horietaz gain, Energiaren Euskal Erakundeak adieraziko dituenekin ere harremanak izango ditu.

Ikastaro bakoitzaren amaieran, esleipendunak honako atal hauek jasoko dituen txostena egingo du Energiaren Euskal Erakundearentzat:

- Saio bakoitzean parte hartu duten guztien zerrenda eta euren helbide osoa.
- Ikastaroan bakoitzak lortutako emaitzak.
- Ikastaroan parte hartu duten ikasleen asebetetze-mailari buruzko inkestak.
- Ikastaroan gerta litezkeen gorabehera berezi eta aipagarriak.

Hilero, kontratistak EEERI hil horretan emandako ikastaroen inguruko txostenak bidaliko dizkio. Horrekin batera, ikastaroetan parte hartuko duten ikasle bakoitzari bidali beharreko bertaratze-egiaztagiriak eta dagozkien fakturak helaraziko dizkio, Pleguaren karatulako "S" atalean azaltzen den bezala. Txosten horiek paperean eta formatu elektronikoan igorriko dira, eta beste fitxategi batean (xis formatua) ikastaroetan parte hartu dutenen zerrenda eta eurekiko harremanetan jartzeko datuak bidaliko dira (izen-abizenak, NAN, helbidea, harremanetarako telefonoa eta posta elektronikoaren helbidea).

4.- EEEK aurrera eramango dituen jarduerak kontratuaren barruan

EEEK ikastaroak eman dakizkiekeen giza talde, erakunde eta abarrekin harremanetan jartzeko bidea erraztuko dio kontratistari. Azken honek beste giza talde edo erakunde batzuekin harremanetan jar daiteke ikastaroak eskaintzeko.

Ikastaroetan erabiliko diren ibilgailuek eramango duten serigrafia EEEK emango dio esleipendunari.

Ikastaroa emateko erabiliko diren gidatze eraginkorrari buruzko eskuliburuak EEEK jarriko ditu. Horretaz gain, eta egoki baderitze, liburuxkak, beste eskuliburu batzuk eta abar ja ditzake EEEK ikasleen eskura.